

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2403

ERABAKIA, 2022ko martxoaren 31koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzaren araudiaren aldaketa onartzeko.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2018ko azaroaren 13ko Erabakiaren bidez, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza lortzeko araudi erregulatzailerik onartu zen (2019-01-07ko EHAA).

Araudiaren helburua zen Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu ikasketa planetako irakasgaiak ikastea ahalbidetuko duen irakaskuntza programazioa antolatzea, bi graduetako tituluak lortzeko, eta 2019-2020 ikasturtean abiarazteko.

Araudiaren eranskin gisa, gradu bikoitzaren irakaskuntza programazioa sartu zen, eta, orain, araudi hori aurkezten da aldatzeko, titulazioaren curriculum garapena kronologikoki harmonizatze aldera.

Horregatik guztiagatik, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordearen proposamenez, eta Gradu Batzordea alde agertuta 2022ko otsailaren 23ko bileran, Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.– Onartzea Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza lortzeko araudi erregulatzailerik aldatzea, betiere eranskinen jasotako baldintzen arabera.

Bigarrena.– Argitara ematea erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Leioa, 2022ko martxoaren 31.

Errektorea,
EVA FERREIRA GARCÍA.

Idazkari nagusia,
AITOR ZURIMENDI ISLA.

ARAUTEGIA, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO ETA KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO
SISTEMEN INFORMATIKAREN INGENIARITZAKO GRADU BIKOITZA LORTZEKO

1. artikulua. Helburua.

Arautegi honen helburua da ikasketa programa bat zehaztea ikasleek Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu ikasketa planetako irakasgaiak egin ahal izateko (ikus eranskina), hartara gradu titulu biak eskura ditzaten. Programazio horren kudeaketa Ekonomia eta Enpresa Fakultateari dagokio, alde batera utzi gabe arautegi honen bosgarren artikuluan Batzorde Akademikoari emandako eskumenak.

2. artikulua. Aplikazio eremua

1.– Arautegi hau aplikatuko zaie UPV/EHUK Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzaren ikasketa programan emango dituen ikasketei.

2.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzaren egiturari esker, bertan matrikulatuta dauden eta programako ikasketak gainditzen dituzten ikasleek bi titulu ofizial eskuratuko dituzte aldi berean: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua, eta bi tituluek balioa izango dute estatu osoan.

3.– Araubide akademikoa, ikasketak emateko arauak, ikasleen ebaluazioa eta, oro har, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzaren ikasketa programaren alderdi akademiko guztiak arautegi honetan zehaztuko dira, eta hemen jasota ez dagoen guztirako, UPV/EHUKo arau orokorrak aplikatuko dira.

3. artikulua. Zuzendaritza akademikoa eta betearazlea.

1.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzeko (aurrerantzean, gradu bikoitza) zuzendaritza akademikoa Batzorde Akademikoari dagokio. Bertan ordezkaturik daude Ekonomia eta Enpresa Fakultatea eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola, eta batzordearen osaera hurrengo artikuluan dago zehaztuta.

2.– Gradu bikoitzeko koordinatzailea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakasle bat izango da. Dekanoak izendatuko du eta Fakultateko Batzarrak onartuko.

4. artikulua. Batzorde Akademikoaren osaera.

1.– Batzorde Akademikoak honako kide hauek izango ditu:

a) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa edo hark eskuordetutako pertsona.

b) Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

c) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Arabako Atalaren Koordinazioko dekanordea edo hark eskuordetutako pertsona.

d) Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendariorde bat, eskolako zuzendariak aukeratua.

e) Gradu bikoitzeko koordinatzailea.

f) Gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleen ordezkari bat.

2.– Batzorde Akademikoko idazkaria izango da Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendariordeetako bat.

3.– Batzorde Akademikoko burua izango da Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa edo hark eskuordetutako dekanordea.

5. artikulua. Batzorde Akademikoaren eginkizunak.

1.– Gradu bikoitzeko Batzorde Akademikoaren ardura izango da, oro har, gradu bikoitzaren zuzendaritza akademikoa. Zehazki, eginkizun hauek izango ditu:

a) Ikastegi bietako batzarrei ikasturte bakoitzerako plaza mugak proposatzea, eta batzarrek behin onartuta, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanuari bidaltzea, hark, graduko gainontzeko titulazioetako plaza mugekin batera, bideratu diezazkion arlo horretako eskumenak dituen errektoreordeari.

b) Gradu bikoitzaren antolaketa akademikoa.

c) Gradu bikoitzaren irakaskuntzaren kalitatea bermatzea eta zaintzea, ikastegi bietako kalitate batzordeekin koordinazioan.

2.– Batzorde Akademikoa gutxienez sei hilean behin bilduko da. Batzordeko buruak deituta bilduko da, edo Batzorde Akademikoko bi kidek gutxienez eskatuta.

3.– Batzorde Akademikoak ahalegina egingo du erabakiak aho batez hartzeko, eta, ezinezkoa denean, kasuan kasuko arloan eskumenak dituen errektoreordeak hartuko du erabakia.

6. artikulua. Gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak.

Honako hauek izango dira gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak:

a) Batzorde Akademikoak hartutako erabakiak betetzea.

b) Gradu bikoitzaren ordezkaria izatea.

c) Batzorde Akademikoak ematen dizkion beste eginkizun batzuk.

d) Beste eginkizun batzuk, UPV/EHUko arauen arabera graduko koordinatzaileari dagozkionak.

7. artikulua. Onarpena.

1.– Ikasleak gradu bikoitzean onartzeko aplikatuko dira UPV/EHUK ikasleak onartzeko dituen arau orokorrak.

2.– Gradu bikoitzeko onarpen nota kalkulatzeko, kontuan hartuko da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduari eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduari dagozkien gai espezifikoek haztapanetik lortutako kalifikaziorik onena.

3.– Gradu bikoitzean onartua izateko, Zientzietako Batxilergoak du lehentasuna.

8. artikulua. Matrikula.

1.– Administrazio ondorioetarako, gradu bikoitza Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradua izango da.

2.– Gradu bikoitzean onartutako ikasleek matrikula egingo dute gradu horretan UPV/EHUko gainontzeko ikasleen baldintza berberetan.

3.– Ikasleek matrikula egitean prezio publikoak ordainduko dituzte arlo horretako arauetan jasotakoari jarraituz, eta eskubidea izango dute ordaintzetik salbuetsita egoteko arau horietan edo legeetan zehaztutako baldintzak betetzen baldin badituzte.

9. artikulua. Gradu bikoitzaren arau akademikoak.

1.– Gradu bikoitzean onartutako ikasleak haren ikasketa programako irakasgaietan baino ez dira matrikulatuko maila bakoitzean. Ikasketa programazioa arautegi honen I. eranskinean dago jasota.

2.– Matrikulatzen diren lehen urtean ikasleak lehen mailako kreditu guztietan matrikulatu beharko dira. Hurrengo maila bakoitzean ikasleak gutxienez 60 kreditutan matrikulatu beharko dira, gradu bikoitzeko programa osoa amaitzeko 60 kreditu baino gutxiago falta zaizkienean izan ezik.

3.– Ikasturte bakoitza amaitzean, ikasleek gutxienez 42 ECTS izan beharko dituzte gaindituta, ohiko eta ezohiko deialdien artean.

4.– Edozelan ere, ikasleek gehienez ere zazpi ikasturtetan amaitu beharko dute programa.

5.– Baldintzaren bat betetzen ez duten ikasleek utzi egin beharko dute gradu bikoitza. Hala ere, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan edo Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduan —beraiek aukeratutakoan— jarraitu ahal izango dituzte ikasketak. Horretarako, eskaria aurkeztu beharko dute ikastegiko dekanotzan edo zuzendaritzan, kasuaren arabera. Ikasle horiek fakultateak/eskolak ezarritako epeetan eta irizpideen arabera egin beharko dute matrikula.

Era berean, ikasle batek erabakiz gero gradu bikoitza bere borondatez uztea, aurreko paragrafoan

azaldutako prozedura aplikatuko zaio aukera izan dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradura edo Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradura pasatzeko.

6.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduak tituluak lortzeko kredituen aitortzea egingo da ikasleak gaindituta dituztenean gradu bikoitzaren ikasketa programako irakasgai guztiak, bi titulazioetako gradu amaierako lanak barne.

10. artikulua. Ebaluazioa.

Gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleen ebaluazioa egingo da gainontzeko titulazio ofizialetako ikasleentzat ezarritako ohiko prozedurari jarraituz, eta graduak titulazio ofizialetarako Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoaren arabera.

11. artikulua. Tituluak eta tituluen gehigarri europarrak (TGE) ematea

Gradu bikoitzaren programa gainditzen duten ikasleek Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak titulua eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduak titulua eta horien gehigarri europarrak eskatu ahal izango dituzte, kasuan kasuko prezio publikoak ordainduta.

12. artikulua. Arautegia onartzea.

Gradu bikoitz honetan matrikulatutako ikasleek arautegi honi jarraitu beharko diote, eta hemen jasota ez dagoenerako, UPV/EHUko arau orokorreari.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arautegi hau indarrean sartuta, indargabetuta geldituko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzari buruzko egungo arautegia, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2019ko urtarrilaren 7an argitaratutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio Graduak Batzordeari behar diren egokitzapenak egiteko arautegi honi.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ahalmena ematen zaio errektoreorde eskudunari arautegi hau aplikatzean sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebazteko.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Arautegi hau 2022-2023 ikasturtean sartuko da indarrean.

ERANSKINA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzaren programazioa.

1. maila (72 kreditu)			
1. lauhilekoa	36 ECTS	2. Lauhilekoa	36 ECTS
Enpresa Ekonomiarako Sarrera	6	Finantza Kontabilitatea	6
Kontabilitaterako Sarrera	6	Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza	6
Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak	6	Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak	6
Analisi Matematikoa	6	Kalkulua	6
Konputagailuen Teknologiaren Oinarriak	6	Programazio Modularra eta Objektuetara Bideratutako Orientazioa	6
Oinarrizko Programazioa	6	Programazioaren Metodologia	6
2. maila (72 kreditu)			
1. lauhilekoa	36 ECTS	2. Lauhilekoa	36 ECTS
Zuzenbiderako Sarrera	6	Historia Ekonomikoa	6
Estatistika eta Datuen Analisia	6	Enpresari Aplikatutako Estatistika	6
Kostuen Kontabilitatea	6	Goi Mailako Finantza Kontabilitatea	6
Sistema Digitalak Diseinatzeko Oinarriak	6	Konputagailuen Egitura	6
Algebra	6	Matematika Diskretua	6
Ikerketa Operatiboa	6	Datu-baseak	6
3. maila (72 kreditu)			
1. lauhilekoa	36 ECTS	2. Lauhilekoa	36 ECTS
Finantza Eragiketen Matematika	6	Merkataritza Zuzendaritza: Politikak	6
Mikroekonomia	6	Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa	6
Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera	6	Egitura Ekonomikoa	6
Konputagailuen Arkitektura	6	Sistema Eragileen Oinarriak	6
Lengoaiak, Konputazioa eta Sistema Adimendunak	6	Software Ingeniaritza	6
Datu-egiturak eta Algoritmoak	6	Enpresak Kudeatzeko Softwarea	6
4. maila (72 kreditu)			
1. lauhilekoa	36 ECTS	2. Lauhilekoa	36 ECTS
Kontabilitate Analisia	6	Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza	6
Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika	6	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena	6
Makroekonomia	6	Datu-baseen Kudeaketa	6
Ekonometria	6	Web Sistemak	6
Konputagailu Sareen Oinarriak	6	Proiektuen Kudeaketa	6
Datu-baseen Diseinua	6	Erabakiak Hartzeko Laguntza Sistemak	6
5. maila (66 kreditu)			
1. lauhilekoa	42 ECTS	2. lauhilekoa	24 ECTS
Enpresa Zuzenbidea	6	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana	12
Enpresaren Zerga Araubidea	6		
Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak	6		
Informazio Sistemen Analisia eta Diseinua	6		
ekoizpenaren Antolakuntza	6	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Amaierako Lana	12
Kudeaketa Integratuko Sistemak	6		
Informazio Sistemen Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak	6		
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzeko kredituak, guztira			354

2022ko ekainaren 2a, osteguna

MAILA BAKOITZEKO ECTS KREDITU KOPURUA

Maila	Oinarrizkoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1.	60	12	-	-	72
2.	36	36	-	-	72
3.	-	72	-	-	72
4.	-	72	-	-	72
5.	-	42	-	24	66
Guztira	96	234	-	24	354